

## Gaur bukatuko da Santa Barbarako harresia eta ermita eraberritzeko auzolantegia

■ 18 gazte aritu dira lanean eta harresiko belar txarrak kendu, barandila pintatu, ermitako egurrak eta atea margotu eta inguruko sasiak kendu dituzte, besteak beste ■ Kutxak eta Udalak babestutako auzolantegiak dira eta Arantzadik daramaki zuzendaritza.

SANTA Barbarako harresia, ermita eta bazterrak garbitzen aritu dira Gipuzkoa guztiko 18 gazte, hilaren 9a ezkerreko, eta egia esan arnastu ederra eman diote inguruari. Gotorlekuari (fortifikazioa) huntza eta belar txarrak kendu dizkiote eta barandua pintatu eta ermitako egurrak eta atea ere pintatu dituzte. Horrez gain, inguruari buruz azalpenak emateko panelak ere jarri dituzte. Hemezortzi gazteko koadrila egunero aritu da lanean, goizeko 09:00etatik 13:30etara, bi monitoreren laguntzarekin eta Arantzadik gidatuta. Astez aritu dira garbitze lanetan, goizetan, eta arratsaldetan eta asteburuetan bestelako aktibitateak egin dituzte gazteek: piraguismoa, espeleologia, mendi ibiliak, raftina eta abar.

### Sei leku gehiagotan

Hernaniko auzolantegiaz gain, beste sei lekutan ere ari dira gazteak berritze lanetan. Larraulgo aterpetxeari pintatu eta fatxada konpondu diote; Jaizkibelgo Arrokaundieta fortifikazioa zaharberritzeko lanean segi dute; Aizkorriaren bio-niztasun indizeak lortzeko lanak egin dituzte; Leitzaranen minetako lehengo instalazioetako batzuk berritu dituzte; eta Getaria eta Zarautz arteko Askizu auzoan baserri baten fatxada berritu dute.

Gazte Kutxa da proiektu hauek antolatzen dituen eta Loren Azurmendi arduradunaren hitzetan, gure kultura eta ondarea berreskuratzea da helburua, ingurugiroa txukuntzeaz gain. Azurmendik gazteek egiten duten lana ere goraiatu du Kronikari egindako adierazpenetan: "azpimarratzekoa



Goiko argazkian gazteak ermitako atea pintatzen eta behean, Arantzadiko, Kutxako eta Udaleko arduradunak Santa Barbaran.

da gazte askok proiektu hauetan egiten duten lana, eta ordain ekonomikorik gabe. Auzolantegi hauetan arkeologiaren aldeko eta ondarea berreskuratzeke kontzientzia pizten zaie eta seguru gaude gerora ere batzuek segiko dituztela pausu hauek".

### Zer berritua badago

Santa Barbarako fortifikazioak txukundu bat hartu du beraz. Hala ere, oraindik zer berritua badago, ermitara dihoan azken aldapa baita konpontzen ibili direna. Harresiko beheko partea, sarrerak eta abar txukuntzeko gelditu dira. □

## Gerra Karlistetan Liberalen puntu garrantzitsua

SANTA Barbarako fuertea, lehenengo Gerra Karlistatik da ezaguna, eta diotenez 1837 eta 1838 artean eraiki zuten. Liberalek Luchanako fuertea izena jarri zioten, Luchanako Kondea zen Espartero jeneralaren omenez. Lehenengo gotorleku hura oraingoaren oso antzekoa zen. Tontorrean, ordea, bestelako dorre bat zuten eta ermita behean zegoen, baserriaren ondoan (orain jatetxea dena). Kuartelak eta bestelakoak ere behean zeuden.

1837an hartu zuten Hernani liberalek eta Santa Barbarako fuertea berek erabili zuten. Altua izateaz gain, inguruan ez du mendi haundirik Santa Barbarak eta Donostialdea zaindu eta Tolosaldea erasotzeko toki estratejikoak izandu zen. Gotorleku nagusia babeste aldera, Santa Barbara inguruan fuerte txiki gehiago egin zituzten Liberalek. Lehenengo Karlistada bukatu artean liberalen esku egon zen, nahiz eta Karlistek beren esku hartzeko ahalegin haundiak egin eta gerra bukatuta txikitu egin zuten fortifikazioa, 1939an.

Bigarren gerra Karlistan Liberalek berriz eraiki zuten Santa Barbarako fuertea, lehenengoaren forma berarekin eta zimendu berdinen gainean. 1872tik 1876ra iraun zuten bigarren gerra Karlistak eta ezinbestekoa izan zen fuertea Hernani eta Donostia babesteko borrokan. Liberalek inguruko puntu asko galdu zituzten eta Donostiarako sarrera Ayetetik bakarrik mantendu zuten: Santa Barbara ezinbesteko babesa izan zen joan etorri horietan. Argi dago beraz, gerra Karlistetan puntu estratejikoak izan zela Santa Barbarakoa Liberalentzat.

Behin gerra bukatuta Santa Barbarako fortifikazioak azkar galdu zuten garrantzia, ez baitzen defentsa militarren plan berrietan sartzen. 1891ean utzi zuten Santa Barbara, baina, kasu honetan ez zen txikitua izan lehenengo Karlistadan bezala eta horregatik dago zutik gaur egun, aldaketa batzuk gora behera.



**JOMERIKI**  
EDARITEGIA  
Kale Nagusia, 7  
☎ 55 00 32  
HERNANI

**Jatetxea**  
*Venta Berri*  
Arano - Nafarroa  
(948) 51 40 18  
Larunbatetan itxia

**ARALAR**  
TABERNA  
Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06 -

**Eguzki perfumeria**  
Eguzki zure denda  
Kale Nagusia 45, Tel.: 943 551333

**Eguzki perfumeria**  
Gure dendan, behar dezuna daukagu.

- Perfumeria
- Opariak
- Edertze gela
- Solariuma
- lleapaindegia



Hiru laurden platafomak deitutako kontzentrazioa, joan den ostegunean Plaza Berrian.

## Kondenaren hiru laurdenak beteak dituzten presoak askatzea eskatzeko kontzentrazioa egin zen ostegunean

■ Hernanin bost dira egoera horretan dauden presoak: Kepa Aira, Inma Noble, Pakito Lujanbio, Xabier Arnaiz eta Joxan Pagola.

KONDENAREN hiru laurdenak beteak dituzten preso hernaniarren askatasuna eskatzeko kontzentrazioa egin da Plaza Berrian bi aste behin, Hiru laurden platafomak deituta. Joan den ostegunean egin zen kontzentrazioa, eta abuztuan egingo ez denez irailerako izango da hurrengo deialdia.

### Bost hernaniar

Kondenaren hiru laurdenak

beteak dituzten hernaniar presoak bost dira: Kepa Aira, Inma Noble, Pakito Lujanbio, Xabier Arnaiz eta Joxan Pagola.

Xabier Arnaiz 1982ko ekaina ezker dago kartzelan, eta 1997ko ekainean bete zituen kondenaren hiru laurdenak. Joxan Pagola 1984ko ekaina ezker dago espetxeratu, eta 1999ko ekainean bete zituen kondenaren hiru

laurdenak. Pakito Lujanbio 1984ko uztailean atxilotu zuten, eta 1999ko uztailean bete zituen kondenaren hiru laurdenak. Inma Noble 1987ko urtarrilean atxilotu zuten, eta 2002ko urtarrilean bete zituen kondenaren hiru laurdenak. Kepa Aira Beltza 1987ko abuztuan atxilotu zuten, eta 2000ko abenduan bete zituen kondenaren hiru laurdenak. □

## TIROA



Sarituak eta Txantxangorri elkarteak lehendakaria atzo Santa Barbaran.

## Antoni Redondo onena Txantxangorriko Trap Amerikarrean

■ Redondok 15 plateretatik 14 jo zituen atzo.

TXANTXANGORRI elkarteak plater tiratzea zuen atzo Santa Barbaran, Trap Amerikar modalitatean. Trap Amerikarrean tiro bakarrera jokatzen da. Hau da, plater bako-

tzerako tiro bakarra egin liteke eta ez bi beste zenbait modalitate bezala. Irabazlea Antonio Redondo izan zen 15 plateretatik 14 jota. Bigarren, berriz, Xabier Mujika gelditu

da 13 plater jota, eta hirugarren Emilio Crespo 12 plater jota.

Hemendik bi astera bukatuko da Txantxangorriko erregularitate txapelketa eta orduan emango dira sariak. □

## AEKn ikastaroak emango dituzte bihartik ostegunera

■ Ahozko ipuigintzari buruzko ikastaroa da bat eta bestea musika beltza eta elektronikoari buruzkoa.

AEK euskaltegiak bi ikastaro antolatu ditu datorren aste-rako. Ahozko ipuigintzari buruzko ikastaroa da bat. Astelehenean ipuigintzaren teoria emango dute: ipui motak, norentzat... asteartean, ipuiak asmatzeko jolasak eta teknikak azalduko dituzte; asteazkenean, ipuiak kontatzerakoan erabili beharreko gorputz jarrerak azalduko dituzte eta saio praktikoa egingo dute; eta ostegunean, ipui kontatzen ariko dira. Ikastaroa bihartik ostegunera da, 10:00etatik 12:00etara.

koari buruzko ikastaroa izango da AEK euskaltegian emango duten bestea. Ikastaroa Aritz Sound Systemek eta Selektah Kolektiboko kideek emango dute. Asteleheneko klasean, musika beltza zer den azalduko dute; asteartean, ordenadorearekin musika nola egin erakusteko klasea emango dute; asteazkenean, disko biniloekin musika nola egin erakutsiko dute eta klase praktikoa izango da gero; eta ostegun gauean festa izango da Goiz Argi tabernan.

Ikastaro guztiak debalde dira eta irekiak dira nahi duenarentzat. □

Musika beltza eta elektronikoari buruzko ikastaroa da bat eta bestea musika beltza eta elektronikoari buruzkoa.

## Madalena jaiak Zaharren Egoitzan bihartik ostegunera

■ Egun haundia Madalena eguneko da, etzi.

ZAHARREN Egoitzan Madalena jaiak dira datorren astean. Astelehenean ostegunera dituzte ekitaldiak eta egun haundiena asteartekoa dute, Madalena eguneko da, etzi.

Meza Nagusia, bazkari berezia eta Bingo Berezia izango dituzte. Bihar bestalde, Igel txapelketa eta merienda dituzte. □

## Osiñagako auzo elkarteak bilera du gaur Arriatsun

■ Iraileko bidaia eta udazkeneko egitaraua zehaztuko dituzte ■ Gaur 12:00etan.

OSIÑAGAKO auzo elkarteak bilera deitu du gaur. Iraileko bidaia antolatzeko eta datorren udazkeneko egutegia eta egin beharreko lanak zehazteko

deitu dute bilera eta beste puntu edo gairen bat ateratzen bada ere eztabaidatuko dute. Gaur, eguerdiko 12:00etan Arriatsu eskola zaharrean. □

## GALDUTAKOAK

### Txakur kumea galdu da Osiñaga eta Urnietako muga artean

TXAKUR kumea galdu da Osiñagan, Hernani eta Urnietako muga egiten duten inguru horretan. Arratoi txakurra da,

arra eta gorri-marroizta. Inork ikusi baldin badu edo bere arrastorik badu deitu 943 58 08 20 telefonora. □

## IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai zentroan. 3 gela dauzka eta berritua dago. Deitu: 943 330 927

Arotz profesionalak etxeko lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar baduzu deitu: 656 78 64 15 (Kepa)

Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukalde eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: 943 55 26 94 (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093  
►Udaltzaingoa: 943 333288  
►DYA: 943 464622  
►Autobusak: 943 556662  
►Anbulatorioa: 943 006666  
►Jokalaria anonimoak: 943 331103

### ☎ FARMAZIAK

►Egunez: Etxebeste  
Elkano 2  
☎ 943 552087  
►Gauz: Oa  
Usurbil. Poligono 1, 1  
☎ 943 376076